Pertsonentzako espazio publikoa berreskuratzea ezinbesteko helburua da GEROA BAIrentzat, espazio seguru eta osasungarriak. Mugikortasunaren banaketa modal batekin, bertan garraio publikoa gailenduz. Honek, aldi berean, ibiltzeko gune berriak sortzen ditu, aisialdirako, hurbiltasuneko merkataritzarako eta turismorako libre dauden guneak. Proposamen hauekin espazio publikoak eraldatzeko politika publikoak bultzatu nahi ditugu, ohitura eta errealitate berrietara egokitzeko

- › Mikrobus elektrikoen **2 doako linea zirkularren ezarpena**, eskaerapeko geldialdiekin eta Curtidoresen geltoki finko bakar batekin, hau izanik bi lineak gurutzatzen diren puntua eta linea batetik bestera aldatzea erraztuz.
- › Santo Domingoko Baratzeen gunearentzako behin betiko konponbidea. **Gizarte etxea/kirol gune dotzionala** Alde Zahararentzako, ordainpeko eta bizilagunentzako aparkaleku mistoarekin. Gunea oinez lotzeko azterlan bat eginez ere.
- › Irunlarrea **kalea hein batean oinezkoentzako bihurtu**, ospitaleen arteko tartea. Aparkalekuko biribilgunetik Barañaingo etorbideraino bizikletentzako bidea.
- › MHB (Merkantzien Hiriko Banaketa) Edo nola arrazionalizatu **azken miliako banaketa** hiriaren erdigunean:



- Logistika zentroyen ondoan **“Urban Hub-ak”** sortu, garraioa, sailkaketa eta zerbitzuak elkartuz, ondoren banaketa burutzeko.
- Entregatu bitartean biltegitazterako espazioen mutualizatzea. Merkatariek haiengandik hurbil dauden tokietan kudeaturik.
- *Azken miliako* banaketaren kudeaketa hiri logistika jasangarriko kudeatzaileen bitartez egin, CO-2rik gabe.
- Entrega orduen arrazionalizazioa. 19:00 eta 23:00 bitartean zarata 65 dBra mugatuz eta 23:00etatik aurrera debekatuz.

- › Hiri-espazio jakin batzuen karakterizazioa (Autobus geltokia, Sanduandia kaleko orubea...), horietan interes estrategiko bereziko etxebizitzak eraikitzeko. Coliving seniors, talentuak erakartzea,...
- › Gizarte Zerbitzuak eskuratzeko lei-hatila bakarraren sorrera.
- › Herri Partaidetzarako Araudiaren erabilera eta ezarpen progresiboa, herritarren aldetik araudiaren baitan dauden partaidetza tresnen erabilpena erraztuko duten gidak landuz.
- › Larrialdi Sozialen zerbitzua sortu, Auzo Unitateek arreta eman ezin dezaketen data eta orduetan zerbitzuaren erabiltzaileen beharriaznei erantzuteko.
- › Gutxiengo etnikoen eta etorkinen gizarteratzea lehenetsi.
- › Erakunde publiko bat sortu (PCH-Nasuvinsa) auzoen eraberritze eta berroneratze sozio-urbanistikorako, eta gazteentzako etxebizitza sozialari bultzada.
- › “Promozio ekonomikorako Guneak” sortu, oso degradaturik dauden hiriko guneak suspertzeko helburu nagusiarekin.
- › Hiritartasun Ikasgelaren pilotu proiektu bat martxan jarri Arrotxapean, bizikidetza hobetzeko helburuarekin beste auzoetara ere esportatzeko aukerarekin.
- › Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Udal Programa sendotu, Latinoamerikako, Asiako eta Afrikako komunitateetan giza garapenaren alde egiteko helburu nagusiarekin.
- › Garapenean heziketa eta harekiko sentibilizazioari bultzada eta sendotzea. Gure gazteak hezteko eta haien hezkidetzarako elkarte sareari eta GGKEei tresna gehiago ematea garrantzitsua da, eginkizun hori Iruñerriko auzo guztietan egiten delarik eta egin daitekeelarik.
- › *Kirolaren Tokiko Kontseilua* sortu, honako helburuekin:
 - Bizitza eta aisialdi osasuntsuaren helburuak lortze aldera koordinaturiko eta bideraturiko plan bat sortu.
 - Kirolari loturiko balioen Plan bat garatu, maila, adin eta kirol kategoria guztietan.
 - Diziplina guztietan eskola kirolaren alde egiten jarraitu, haurrak kirol jarduerara eta bizitza ohitura osasungarrietara hurbiltzeko baliabidea baita.
 - Kirolaren sustapenerako udal planaren baitan dauden kirol jardunaldiak babestu.
 - Modalitate guztietan eta bere kategoria guztietan emakumezkoen kirola sustatu eta bultzatu.

Geroa Bain ongi dakigu pertsona guztiek kultura eskuratzea bermatzeko eginkizuna dugula, bai eta kultura aniztasuna gordetzekoa eta kultura eskubideen erabateko jarduna ziurtatzekoa ere. Betekizun hauek kulturaren paper eraldatzailea aitortzen dute, gizarte inklusiboak, berdinzaleak eta jasangarriak eraikitzeko orduan funtsezko ondasun publikoa baita Kultura. Europako gizarte aurreratuenek eskatzen duten kontratu sozial berriak, politika publikoetan zentraltasun handiagoko tokia hartzea behartzen du Kultura. Gure ondasun publiko boteretsuena da Kultura, izan ere “kulturak bakarrik inspiratzen ditu gure existentziari zentzua ematen dioten helburuak”.



Kulturaren 21 Agendarekin bat egin

2004an onartu zuten Giza Eskubideekin, kultura aniztasunarekin, jasangarritasunarekin, demokrazia parte hartzailearekin eta bake baldintzen sorrerarekin konpromisoa hartu zuten mundu osoko hiri eta tokiko gobernuak. 21 Agenda tokiko kultura-politiken garapenerako erreferentziazko markoa da, bai eta kulturaren plan estrategiko ezberdinentzako ere, hala nola Bartzelona, Donostia, Zaragoza, Burgos ego Gasteiz hirietakoak, besteak beste.

Iruñeko Kultura Plan Estrategikoa

Partaidetzadun kultura plan estrategiko bat lantzearen alde egiten dugu, herritarren eta hiriko kultura eragileen iritziei irekia, hauek publikoak, pribatuak edo elkarteak izan, gobernantza eta lidergo modu berriak mesedetuz eta haien eragin sozialerako ahalmena sendotuz. Hiriaren kultura politika kultura-eskubideen markotik diseinatzea izango da planaren helburua, Nafarroako Kultura Eskubideen 1/2019 Foru Legeari betekizuna emanez. Bere printzipio inspiratzaileak honakoak izango dira: kultura aniztasunaren sustapena, gardentasuna eta gobernu egokia, transbertsaltasuna, deszentralizazioa, “eskualdeko kultura”, genero ikuspuntua eta jasangarritasuna.

Kulturaren deszentralizazioa: auzoetan bizitza kulturala bultzatu

Kultura jardueraren deszentralizazioaren aldeko bultzada tinkoa sustatuko dugu, hurbiltasunari balioa emango diogu kultura eskaintza auzo guztietan banatuz eta hiri osoan egiten den kultura aitortuz, hura ikusaraziz eta babesa emanez, ahalik eta baldintza hoberenetan garatzeko aukera izan dezan.

Civivox-en eraldaketa

Zentro hauen orientazioa eraldatzearen alde egiten dugu, kulturaren deszentralizazioaren politika berri honen ardatz bihurtuz, hiriko auzoen dinamizatzaile soziokulturalaren egin-kizuna emanez. Herri partaidetza bultzatuko dugu, horretarako zentroetako kontseiluez baliatuz, errealitate sozial berriek eskatzen dutena kontuan hartuko dugu, bere profesionalen lan baldintzak hobetuko ditugu eta bere izen aldaketa proposatuko dugu.

Hiriartea Berreskuratu (Ziudadela), arte eta kultura garaikidearen zentro moduan

Hiriartea berreskuratu eta bultzatu arte plastikoen erakusketarako eta he-dapenerako espazio moduan, bai eta artearen sorkuntza-ekoizpenerako espazio moduan eta herritarrentzako to-pagune moduan ere, hausnarketarako, pentsamendurako eta meditaziorako leku izan dadin.

Kultura feminizatzeo genero jardunbide egokiak

Genero jardunbide egokiak burutzea defendatzen dugu: epaimahaien, diru-laguntzen baloraziorako batzordeen, patronatuen eta Iruñeko Udalaren menpe dauden beste organoen erake-ta parekidea.

Emakume artista eta sortzaileei babesa

Dirulaguntzen deialdien oinarrietan, balorazio irizpideei berri bat gaineratuko diogu, emakumeek buruturiko proiektu artistiko edo kulturalak pun-tuatzeko.

Emakumeen berreskurapen historikoa

Emakume artistak, interpreteak, sort-zailleak, idazleak, margolariak, arkitek-toak eta abar ahanzturatik erreskatat-zeko ikerketa historikorako beka bat bultzatuko dugu Udal artxiboarekin lankidetzan.

Kulturaren udal kontseilua

Eragile kultural eta artistikoen partai-detza zabala duten espazioak dira kul-turaren udal Kontseiluak, eta kontsul-tazko zein aholkularitza eginkizunekin udalerriko politika kulturalen eraikunt-zan laguntzen dute. Udal kultura Kont-seiluaren sorrera proposatuko dugu.

Euskara

Euskara Nafarroako hizkuntza propioa da; babesa eta sustapena behar dituen eta berreskurapen prozesuan dagoen hizkuntza gutxitua. Euskarazko sor-kuntza artistiko berritzailea bultzatuko dugu, adierazteko eta sortzeko askata-suna, jarduera kulturalak burutzeko eta ezagutzak eta sorkuntzak elkar banat-zeko askatasuna: euskaraz bizitzeko.

Udal Artxiboa

Iruñeko Udal Artxiboak Iruñeko Uda-lak bere jatorrietatik gaur arte sortu-tako eta jasotako ondare dokumenta-la zaintzen eta gordetzen du, bai eta Udalak erositako ondare bibliografikoa eta ikus-entzunezkoa, ondare artistiko higigarria, etnologikoa eta industrial-a ere. Bere edukien ezagutza hiritarren artean gehiago hedatzea proposatuko dugu, bereziki Fototekako eta Heme-rotekako dokumentuak, horretarako oroimen historikoaren bitartekaritza eta berreskurapen programak erabiliz.

segurtasuna eta bizikidetza



Geroa Baiko lagunok gizatasun handiagoko hiria nahi dugu, bertan bizikidetza eta segurtasuna bertako hiritarren askatasunaren, aniztasunaren eta ongizatearen berme izan daitezzen. Segurtasun eredu eraginkor eta hurbil baten alde egiten dugu, prebentzioskoa eta hiriko biztanleen laguntzarako izango dena. Horretarako honakoak proposatzen ditugu:

- › Babes Zibileko gaueko zerbitzu baten sorrera (Bizikidetza Udaltzainak, HONTZAK), zerbitzu ezberdinetara bideraturik, hala nola: Hiriko kaleetan egon daitezkeen hondaketa edo oztopoen berri eman, objektu arriskutsuak kendu, hiritarrei akonpainamendua, gatazketan bitartekaritza eta udal ordenantza eta zerbitzuen inguruko aholkularitza eta ohartarazpen eginkizunak.
- › Hurbiltasunezko Udaltzaingo eredu berreskuratu, auzoetan etengabeko presentziarekin eta parkeetan edo ibai paseoan Bizikleta-Udaltzain taldea sendotuz.
- › Iruñerriko udaltzaingoaren arteko koordinazioaren instituzionalizazioa, kasu honetarako langileria eta baliabide espezifikoeekin.
- › Eskola ingurune seguruen hedapena.
- › Espazio publikoa erabilera partikularrerako eskuratzeko eta horren erabilera arautzeko Plan Zuzendaria.

Iruñea, 2.000 urte baino gehiagoko historiarekin, penintsulako hiri zaharrenetakoa da. Zezenak, jaia eta tabernak bezalako estereotipoengatik bakarrik ezagutzea ez du merezi. Bere historiaren, kulturaren eta monumentaltasunaren balioa azpimarratzea premiazkoa da.

- › Alde Zaharraren balio historikoa berretsi (3 hiri, 80 kale, 12 plaza eta 8 paseo).
- › Donejakue Bideko lehen hiri handi moduan Iruñearen irudia sendotu.
- › Hiria ondu eta ukitzekin berreskurapena (bere historia, bere pertsonaiak, bere kondairak) hiriko puntu estrategikoetan kokatuko diren QR kodeen laguntzarekin.
- › Bisitariarentzako *Ongietorriak Txartelaren* ezarpena, museo nagusietan (8) erabiltzeko, edo interpretazio zentroetan (3) eta hiriko monumentuetan ere.
- › Gure auzoetan bizi direnak lehenetsi masa-turismoaren aurrean. Turismoa bai, baina ordenaturik.
- › Aparkaleku guztiak tenkatuen azterlana eta analisia, eta auzoetan konponbiderik hoberenen bilaketa, ibilgailu saturazio handiena jasaten duten auzoetan bereziki.



iruñea komunitarioa

Alor sozialean kohesionaturik egongo den Iruñea bat da gure proposamena, mota guztietako desberdintasunak deuseztatzen lagunduko duena, hala nola hiriko auzo batean edo bestean bizitzeagatik sortzen diren desberdintasunak.

Hiri bizigarria, lasaia eta arnasgarria nahi dugu, baina pertsonen lagun izango den hiri bat nahi dugu ere.

Horretarako nahitaezkoa da Iruñea sozialagoa sustatzen lagunduko duten ekintzei ikuspuntu transbertsal batetik ekitea eta horiek sendotzea. Horretarako proposamen hauek ditugu:

IKUSPUNTU KOMUNITARIO ETA INTEGRATZAILEA

Hautzaroa eta nerabezaroa

- › Iruñeko auzo guztietan prebentzio-ekintza komunitarioko zerbitzuak berrezarri, bizitza estilo osasungarriak sustatzeko, haur zein nerabeentzako aisialdirako guneak eta haientzako garrantzitsuak diren ikaskuntzak eskaintzeko, bizi diren markoan haien garapen integrala mesedetzeko helburuarekin.
- › Zerbitzu komunitario horiek auzo bakoitzean gainontzeko elkarte, talde eta aktoreekin koordinatu, belaunaldien arteko bizikidetzeta eta harremanak sendotuz, horrela gizarte-kohesio handiagoa sortuz eta ekintza komunitarioa sustatuz.
- › Prebentzio-ekintza hauek udaletik diseinatu den Hautzaroaren Planaren baitan integratu, horri esker Iruñea



hautzaroaren lagun den hiria baita.

Gazteria

- › Gazteen aisialdi eta denbora librearen beharriari erantzuten dieten jardueren diseinuan eta garapenean gazteen partaidetza sustatu, horretarako Gaztediaren Etxea erabiliz, 13 eta 17 urte bitarteko gazteei bereziki zuzendurik baitago.
- › Artista eta sortzaile gazteek haien obrak, sorkuntzak eta emanaldiak ezagutzera eman ahal izateko espazioak eskaini.
- › Gazteek haien zalantzak eta ondoez emozionalak planteatzeko espazio seguru bat edukitzea ahalbidetu, lehen mailako profesionalen arreta eskainiz, hala nola psikologiako eta gizarteratzearen profesionalena, haien garapen pertsonal, sozial eta emozionala mesedetzeko eta buruko osasun maila handiagoa sustatzeko.

- › Gazteen autonomia mesedetu enplegua, etxebizitza eta hezkuntza beza-lakoekin harremana duten alorretan.

Adinekoak

- › Marko komunitario baten baitan adinekoen autonomia eta partaidetza sustatu, belaunaldien arteko harremanak mesedetuz.
- › Adineko pertsonen beharriaz erantzuteko ekintza komunitarioko programak garatu, isolamendu eta bakardade egoerak ekidinez, adineko pertsonen lagun den hiriaren markoaren baitan.
- › Etxe-etxeko arretak gaur egun dituen beharren azterlan xehe bat burutu, gertatzen ari diren aldaketa demografikoetara egokitzuz eta pertsonak haien ingurunean mantentzearen alde eginez.
- › Komunitatearen baitan bizitegi-eredu berriak sustatu, hala nola kolaboraziozko etxebizitzak edo belaunaldiarteko etxebizitzak.

BERDINTASUNETIK BEGIRADA

- › Udalean Berdintasun Alor propio bat sortu, zuzenean Alkatetzaren menpe egonik, ikusgarritasun handiagoa bermatzeko eta transbertsaltasuna gainontzeko Alorrekin lantzeko aukera tarte handiagoa bermatzeko ere.
- › Berdintasunerako IV Planaren lanke-ta 2023an hasi.
- › Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeei zuzenduriko akonpainamendu eta interbentzio integraleko programak garatu.
- › Emakumeen Etxearentzako baliabide ekonomikoak eta giza baliabi-

deak bideratu, horrela bere jarduera eta ordutegiak zabaltzeko aukera emanez. Bereziki goizetan jarduerak eta bilerak egin ahal izateko.

- › Begirada feminista izango duen hiri-gintza sustatu.
- › Klima aldaketara egokitzeko begirada ekofeminista.
- › Iruñeko I LGTBI Udal Plana onartu, jada buruturik baina garapenik gabe dagoena.
- › Harrotun LGTBIfobiaren aurkako Behatokia sendotu, bai eta zerbitzu hau herritarren artean gehiago ezagutarazi.

EKINTZA SOZIALETIK BEGIRADA

- › Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan lehen mailako arreta psikologikoa eskaini, horrela erabiltzaileen ongizate emozionala eta buruko osasuna sustatuz.
- › Giza baliabideen eta espazio fisiko egokien bitartez Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako programa ezberdinen garapena bermatu.
- › Aktibazio programak gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonetara edo pertsona zaurgarrietara egokitu.
- › Kontratazio publikoan klausula sozialen betetzea bermatu, Kontratuaren Foru Legeak dioenarekin bat, eta alor pribatuan horiek sustatu ere.
- › Tailer-Ekolak bultzatu eta sendotu.
- › Formakuntza eta Enplegu Programa Integratuak bultzatu eta sendotu, bai eta profesionaltasun ziurtagiriak lortzera bideraturik dauden

formakuntza-jarduerak ere.

- › Babestutako Enplegu Soziala bultzatu eta sendotu.

ANIZTASUNETIK BEGIRADA

- › Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek etorkinen alorrean burutzen duten lana sendotu, zerbitzu horien esparru espezifikoean bereziki: arrera, migrazio-dolua, familiarekin berriz-elkartzea, besteak beste, bai eta desgaitasuna duten pertsonen alorrean ere.
- › Etorkinak Iruñeko hiri-jardueran parte hartzea sustatu.

teknologiak eta ekonomia zirkularra

- › Udal eraikin eta gizarte etxe guztien energia kontsumoaren azterlan intentsiboa. Aerotermian eta ahal den tokietan eguzki plaketan oinarrituriko eraginkortasun energetikoko planak martxan jarri.
- › Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak aprobetxatuko dituen Hiri Adimentsu baterantz trantsizioa, garapen eraginkorragoa eta jasangarriagoa lortzeko eta hiritarren ongizatea hobetzeko.
- › Iruñea FEARLESS CITIES sarean sartu, pertsonak eta ingurumena oinarrian jarri ekonomia zirkularra bultzatzeko inplikaturik dauden hirien sarean alegia.
- › Iruñea “Europako Hiri” moduan karakterizatu, Euroeskualdeko bere homologoekin harreman estuak sustatuz eta talentua erakartzeko eta hura bertan mantentzeko arreta jarri.
- › “Gauzateka” moduan ezagutzen den gauzen liburutegi bati bultzada. Estatuko eta Europako beste hirietan jada badagoen ekonomia zirkularren pilotu proiektua.



euskera

Iruñeak bi hizkuntza propio ditu, gaztelania eta euskara. Biak udal administrazioaren esparruan parekidetasunez erabiltzeko aukera egotea defendatzen dugu Geroa Baitik, honakoa, hortaz, Iruñeko udalaren barruan ardatz transbertsala izanik.

Horregatik, 2018ko Ordenantza berreskuratuko dugu -egungo udal gobernu taldeak indargabetua- aurreko ordenantza eguneratu eta Foru arau-

dira zein Europako araudira egokitu baitzuen, zehazki Eskualdeko Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutxituen Europako Itunera egokitu zuen, hiritarrak udalera bi hizkuntzetan iristea bermatuz, besteak beste.

Eta haur eskoletan euskarazko irakaskuntzadun plazen berrikusketa egingo dugu eta benetako eskaerara egokitu dituko ditugu.

oroimena

Indarkeria guztien biktimek egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eskubidea dutela tinkotasunez defendatzen dugu. Eta eskubide hau benetakoa izan dadin eta errealitate bihurtu dadin esparru guztietan egiten dugu lan eta lan egiten jarraituko dugu.

Zentzu honetan, eta zerbait berriro ez errepikatzeko gogoratzea ere beharrezkoa dela kontuan izanik, oroimendun ibilbideen sorrera bultzatuko dugu, gure historian zehar egon diren giza eskubideen urraketa hauek gertatu ziren tokiak aldarrikatuz.

merkataritza

Iruñean zerbaitekin harro egoteko aukera badugu, hori hurbiltasuneko eta auzoko merkataritza da, zero kilometrokoa, honek, zailtasun guztien gainetik, bizirik dirauelarik. Gaurkotasan osoa duten balioekin zeharo bat datorren negozio eredua da: tokiko kontsumo eredua, arduratsua eta jasangarria, ingurumenarekiko begirunearen irizpideekin koherentea, eta bere inguru hurbilenearekin konprometitua. Eta hau da sentsibilizazio kanpainen bitartez sustatuko duguna, Iruñeko hiritarrek gure auzoetan kontsumitu dezaten eta modu jasangarrian eta arduratsuan egin dezaten gainera.

atzeko oihala



Ongi dakigu egiten ditugun proposamen guzti-guztiak erabat teilakaturik eta bata besteari elkarri loturik daudela. Horregatik, hauteskunde hauetarako zenbait proposamen zehatz aurkezten ditugu ere, atzeko oihal zabal handi baten gainean inprimaturik dauden helburu askori modu estuan loturik doazelarik, esaterako:

- › Iruñea sozialki kohesionatu bat, auzo biziekin eta haien lotunea “mesetan”, Alde Zaharrean aurkitzen dutelarik.
- › Elkarte sarea eta mugimendu komunitarioa sendotzeko ardura duen Iruñea bat.
- › Iruñea plurala, jatorrian eta kulturari anitza den herritarrekin, baina biziki-detzan aritzeko borondatearekin.
- › Bigarren mailako auzorik gabeko Iruñea bat.
- › Adinekoentzako Iruñea atsegin eta abegikorra, goxoa.
- › Iruñea berdinzalea, bertan emakumeek gizonzakoek dituzten aukera berberak edukiz edo LGBTI pertsonak gainontzekoen moduan sentituz.
- › Gazteriarentzako eta talentuarentzako Iruñea erakargarri bat. Oinarritzako esparruak sakonki landuko dituen (formakuntza, enplegua, etxebizitza), eta kultura, ingurumena edo osasun publikoa ahaztu gabe.
- › Euskara hizkuntza normalizatu moduan edukiko duen Iruñea bat, administratzen herritarrek euskarazko arreta jasotzea bermatuko duena, auzo guztietan euskarazko eredia izango duten hezkuntza zentroekin. Bere paisaia sozial eta kultural osoa ziprztinduko duten hizkuntzekin eta kulturekin harro egongo den hiri elebiduna.
- › Ezagutzaren eta berrikuntzaren zentro den Iruñea bat, Nafarroaren motore izango dena, 3 unibertsitate eta osasun ikerketan punta-puntako hiru zentro dituena.
- › Berrikuntza digitalaren eta Adimen Artifizialaren Poloaren zentro den Iruñea bat.
- › Talentua eta gazteak erakartzeko eta horiek bertan mantentzeko leku den Iruñea bat.
- › Bizi zuen iragan biolentoaren oroi-men kritikoa aldarrikatzen duen eta hori buruan duen Iruñea bat.
- › Iruñea europar bat, jasangarritasuna

edo estrategia digitalak bezalako alortan Europako beste hiri eta eskualdeekin proiektu amankomunekin.

- › Iruñea konektatu bat, hiri adimentsu edo smart cities estrategiari bultzada emanaz.
- › Garraio publiko eredugarria duen eta txirringulardi zein oinezkoekin adiskidetsua den Iruñea bat.
- › Energia berriztagarri eta autokontsumo proiektuen buruan dagoen Iruñea bat.
- › Bere etxebizitza eta eraikinen zaharberritzea zaintzen duen Iruñea bat. Etxebizitzak eraginkortasun energetikoaren irizpideekin egingo dituen, gazteei alokatzeko edo saltzeko etxebizitzak izango dituen, adinekoekin batera bizitzeko etxebizitza

ereduak izango dituen.

- › 15 minutuko Iruñea bat, 3-30-300 filosofiarekin (3 zuhaitz nire leihotik, %30 berdegune nire auzoan eta parke publiko batetik 300 metrora) eta zero emisioko guneekin.
- › 2050 urtean karbonoaren hiri neutroa izango den Iruñea.
- › Merkataritza makrozentroen aurrean hurbiltasunezko merkataritza bultzatzen duen Iruñea bat.
- › Adinekoentzako edo desgaitasuna dutenentzako ibilbide irisgarriak edo eskola bide seguruak dituen Iruñea bat.
- › Bere peña eta kolektibo herrikoiekin bere jaiak, Sanferminak eta bere auzoetako festak adosteko gai den Iruñea bat, espazio anitzekin eta denon arteko bizikidetzarekin.



1 AZPILAGAÑA

- › Adinekoentzako apartamentuak eraikitzea.
- › Auzotarrentzako eta auzoko elkarreentzako lokalak.

2 BUZTINTXURI

- › Trenbidea kalea 2ko eraikina eraitsi ondoren geratu den orubearren garapena, erabilera sozialera bideratuz.

3 ALDE ZAHARRA


- › Santo Domingon aparkalekua eta polikiroldegia.
- › Basotxoaren berrurbanizatzea (aurrekontua egina duen proiektua)
- › Nafarroako Museo inguruaren berrurbanizatzea.
- › Nafarroako Artxibo inguruaren berrurbanizatzea (Jauregiko Aldapa, Barquilleros, Aldapa, eta abar).
- › Santa Ana Plazaren berrurbanizatzea (Esku-hartze Globaleko Proiektua).
- › Navarrerriako Esku-hartze Globaleko Proiektuari bultzada.
- › Burguen Plaza berriaren proiektua.
- › Haurrentzako jolastoki estaliak jarri.

4 ZABALGUNEAK

- › Eroritakoen monumentuaren inguruaren berrurbanizatzea eta berroneratze demokratikorako proiektua.
- › Hiri Jarduketarako Plan Berezia onartu. (Autobus geltokia, aparkalekuak, Behe Nafarroa etorbidearen berrantolaketa, eta abar).
- › Bakearen Plaza Abejeras eta Gayarre kaleekin lotzeko bizikletentzako bidea.

5 ERMITAGAÑA - MENDEBALDEA

- › Yamaguchin kaleko edanaren jarduera eta haren molestiak murriztu
- › Mugikortasun hobekuntzak Barañainekin konexioan.




6 ETXABAKOITZ

- › Nicasio Landa ikastetxean behin-behineko Civivox bat (aurrekontua egina dago).
- › Bizilagunentzako hiri baratzeen handitzea.

7 ITURRAMA

- › Pio XII etorbideko bizikletentzako bidearen berrurbanizatzea amaitu (aurrekontua egina dago), Unibertsitate Klinikaren konexiorako proiektua burutu eta Barañaingo etorbideraino lotura.



8 LEZKAIRU

- › L23 lursailaren salmenta eta garapena.
- › Maravillas Lamberto Plaza inguruarren garapen urbanistikoa eta plaza horretan Civibox Proiektuaren garapena.
- › Adela Bazo kalearen eta Mutiloako parkearen artean dagoen zonaldean parke bat egiteko proiektua.

9 ARROSADIA-MILAGROSA

- › Hiri Jarduketarako Plan Berezia bultzatu, bere baitan Arrosadiarako hiru plaza, kultura dotazio bat, Víctor Pradera - Paderborn aldean paseo bat eta 242 etxebizitza aurreikusiz.

10 MENDILLORRI

- › Auzoan gazteen aisialdirako gune gehiago jarri.
- › Adinekoentzako tutoretzapeko etxebizitzak egiteko ekimena.

11 ERRIPAGAINA

- › Udal mugen erabakiaren gaineko akordioaren ondoren bizilagunei galdeketa.
- › Burlataren mugapean Osasun Etxea eta Ikastetxe Publikoa eraikitzeari bultzada
- › Iruñearen mugapean Civibox proiektua.

12 ARROTXAPEA

- › MATESA zonaldeari bultzada eta bere garapena, horretarako plaza berri bat burutuz eta bertan merkataritza gune baten ordeztxebizitzak eraikitzea ahalbidetzeko hiri antolamendua aldatuz.
- › Auzoarentzako lokalen gabeziari irtenbidea emateko MATESA ondoko hiri-garapen berria erabili, Arrotxapeako A 5 unitatean.
- › La Runa eta Errotazar kaleen garbitasunean eta mugikortasunean hobekuntzak Antsoaineraino eta Atarrabia Etorbideraino Txantrean.
- › Hiritartasun Ikasgelari bultzada. Pilotu proiektua.

13 SANDUZELAI

- › San Jorge etorbideko biribilgunerako ideia lehiaketa.
- › Juaristi Doktorea eta Labayen Doktorea kaleen bidegurutzearen berrurbanizatze lanen burutzea (aurrekontua egina duen proiektua).

14 DONIBANE

- › Espetxe zaharraren orubean Haur Eskola bat eta Zonaldearen berrurbanizazioa.
- › San Juan Xar Txikiren finantzaketa.

15 TXANTREA

- › María Auxiliadora kalea, Felix Plaza eta Aibar kalearen berrurbanizatzea (aurrekontua egina duen proiektua)
- › Tokiko Inbertsioen Plana, Etxarri-Aranatz eta Artaxoa kaleen berrurbanizatzea.
- › Txantrea Aranzadi zaldaina (aurrekontua egina duen proiektua).

16 SANTA MARÍA LA REAL

- › Hiri Jarduketarako Plan Berezi bat proposatu.



GEROABAI

LA NAVARRA DE TODOS/AS
GUZTAN NAFARROA

